

Super PEPO, Zer izan nahi duzu handitan?



Irakasleak idazlan bat egin behar genuela esan zigun. Zehazki, gai honen inguruan:
Zer izan nahi duzu handitan?

Handiek askotan egiten zidaten galdera hori, baina inoiz ez nekien zer erantzun:

- Zure adineko mutil guztiek bezala, futbolaria izan nahiko duzu, ezta, Pepo?
-galdetzen zidan Luisak, nire amonaren bizilagunak.

Tira, jolas-orduan gustura ibiltzen nintzen futbolean, baina ez neukan futbolaria izateko asmorik. Baziren gehiago gustatzen zitzaizkidan beste gauza batzuk. Baina nire lagun Irenek oso garbi zeukan berak futbolaria izan nahi zuela. Zortzi urte zeuzkanetik, eskolako taldean jokatzeko zuten, eta bere ametsa estadio izuugarri batean gol bat sartzea zen, milaka pertsonaren aurrean.

Behin, jolastokian geundenean, amets hori kontatu zigunean, Iñaki eta Peru barrez hasi zitzaizkion:

- Futbolaria izan nahi duzula? Baina neska zara-eta! Ez duzu zure ametsa inoiz beteko. Futbolaririk onenak gizonak dira.

- Hori ez da egia! -esan zuten Irenek. Eta, korrika, alde egin zuten.

Irene, haserre baino gehiago, triste zegoen, askotan entzun behar izaten zuelako futbola gizonen kontua zela.

Orduan, irakasleak agindu zigun idazlana gogoratu nuen:

- Handitan zer izan nahi dugun erantzun baino lehen, neskak ala mutilak garen ikusi behar dugu, ala? Zer dira, ba: lanbide batzuk neskentzat, eta beste batzuk mutilentzat? Non dago hori idatzita?




Arratsaldean, Superheroien Ikastetxera iritsi nintzenean, gertatutakoaren berri eman nion irakasleari, eta laguntza eskatu nion. Irakasleak esan zidan gauzak asko aldatu direla azken urteotan, baina, oraindik ere, alde handiak daudela gizonen eta emakumeen artean. Eta, horregatik, emakumeek, batzuetan, ez dauzkatela gizonen aukera berdinak:

- Entzun, Pepo: ba al zenekien munduko leku askotan neskek ezin dutela eskolara joan, etxeko lanak egiteaz eta familia zaintzeaz arduratu behar dutelako? Ez dakite ez irakurtzen, ezta idazten ere. A zer nolako etorkizuna izango duten gaixoek! Hala ere, superheroi emakume askok hori aldatzeko ahalegina egin dute. Joan Superheroien artxibora, eta ikusiko duzu halako zenbat eta zenbat emakume dauden.
- Superheroien artxibora! Baina azken ikasturteko superheroiak bakarrik sar daitezke han!
- Lasai: sartzeko baimena emango dizut. Oso lan garrantzitsua egin behar duzu, eta han aurkituko duzuna oso baliagarria izango zaizu.

Irakasleak sartzeko kode bat eman zidan, eta jarraibide batzuk ere bai.

- Eskerrik asko, irakasle! –eta korrika joan nintzen artxibora.






Superheroien artxiboa ikastetxeko sotoan zegoen. Han gordetako informazioa balio handikoa zen; horregatik zegoen hain ondo babestuta. Han sartzeko, irakasleak eman zidan gakoa idatzi behar izan nuen teklatu batean. Pelikuletan bezala! Hunkituta nengoen, neu nintzelako gelako guztien artean han sartzen lehena.

Ate batzuk zabaldu ziren, igogailu batenak bezalakoak, eta ez dakizue zer ikusi nuen! Sekulako leku handia zen hura; inork ez zuen pentsatuko hor behean halakorik zegoenik. Sabaian zintzilik, pantaila erraldoi bat zegoen, informazioa bilatzeko, eta inguruan artxibo pila bat zeuden, milaka superheroien fitxekin.

Emakume ausart askoren historiak irakurri nituen, ordura arte gizonek bakarrik egin zituzten gauzak egiten hasi zirenenak: emakume zientzialariak, idazleak, politikariak... Askok sufritu zuten, haien ametsak bete arte.

- Aurkitu dut idazlanerako bilatzen nuena. Badaukat erantzuna!



Hurrengo egunean, nire idazlana irakurtzera arbelera atera nintzenean, oso urduri nengoen. Irakasleak zero patatero bat jarriko zidala pentsatzen nuen, azken batean ez nuelako esan handitan zer izan nahi nuen...

Irakurtzen hasi nintzen:

- **ZER IZAN NAHI DUZU HANDITAN? Ba, egia esan, ez dakit...**

Irakasleak begirada berezi samarra zuzendu zidan, baina ez zuen ezer esan, eta entzuten jarraitu zuen.

Superheroien artxiboan aurkitu niena kontatu nien. Esan nien neska askok ezin dutela aukeratu handitan zer izan nahi duten, eta emakume batzuek borroka egin behar izan dutela haien ametsak betetzeko, nahiz eta inguruko askok batere lagundu ez. Eta honela bukatu nuen:

- Oraingo ez dakit handitan zer izan nahi dudan. Baina badakit garrantzitsuena nire ametsak betetzeko ahalegina egitea dela. Eta, gainera, neskek eta mutilek gauza berberak egin ditzakegula ikasi dut, eta ez daudela alde batetik nesken ametsak eta beste alde batetik mutilen ametsak, zeren eta ametsak guztionak dira.

Irakasleak zorionak eman zizkidan, eta esan zidan oso gauza garrantzitsuak esan nituela. Iñakiri eta Peruri begiratu nien, baina lotsa-lotsa eginda zeuden, burumakur. Ordutik aurrera, ez zioten Ireneri barrerik egin, handitan futbolaria izan nahi zuela esaten zuenean. Irene oso neska ausarta da, sekulako superheroia, eta ni oso harro nago bere laguna izateaz.

- **Aizue, lagunok, ETA ZUEK ZE AMETS DAUZKAZUE?**

Gogoan izan benetako superheroiek ez dutela nahi duten guztia lehenengoan lortzen. Baina ez dute amore ematen, eta behin eta berriro egiten dute ahalegina. Horrela, gero eta indartsuagoak izaten dira!

